

Urnietako Udala*Ayuntamiento de Urnieta**Sipuzkoa*

2005EKO MAIATZAREN 23KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 23 DE MAYO DE 2005

Akta zenbakia: 6/2005
Bilera data: 2005-05-23
Bilera mota: Ez ohiko osoko bilkura
Deialdia: Lehenengoa
Ordua: 16:30-16:55
Tokia: Udaletxeko areto nagusia

Acta nº: 6/2005
Fecha: 23-05-2005
Tipo de reunión: Pleno extraordinario
Convocatoria: Primera
Hora: 16:30 – 16:55
Lugar: Salón de plenos del Ayuntamiento

Bertaratutakoak:
Alkatea: Florentino Ugalde Atxaga

Reunidos:
Alcalde: Florentino Ugalde Atxaga

Zinegotziak:
 Maria Isabel Vaquero Montero
 Jose Luis Aramendi Goikoetxea
 Jose Maria Aldanondo Ugalde
 Maria Angeles Iriondo Mugica
 Gaspar Esnaola Agesta
 M. Teresa Pagazaurtundua Ruiz
 Hermenegildo Gonzalez Moran
 Consuelo Frutos González
 Jose Guirado Novo
 Juan Maria Tomasena Alzuri
 M. Asuncion Guerra Alonso
Ezin etorria adierazi dute:
 Jose Maria Mugica Heras

Concejales:
 Maria Isabel Vaquero Montero
 José Luis Aramendi Goikoetxea
 Jose Maria Aldanondo Ugalde
 Maria Ángeles Iriondo Múgica
 Gaspar Esnaola Agesta
 M^a Teresa Pagazaurtundua Ruiz
 Hermenegildo González Morán
 Consuelo Frutos González
 José Guirado Novo
 Juan Maria Tomasena Alzuri
 M^a Asuncion Guerra Alonso
Ausentes, que se han excusado:
 Jose Maria Mugica Heras

Bitarteko idazkaria:
 Beatriz Garate Cortabarría

Secretaria interina:
 Beatriz Garate Cortabarría

Aztergaiak:

1.- Udaleko talde sozialistak aurkeztutako mozioa, Urnietak bere ginekologia zerbitzua izateko beharrezko pausoak eman daitezzen.

Orden del día:


1.- Moción presentada por el grupo municipal socialista para que se den los pasos necesarios y que Urnieta pueda disponer de servicio ginecológico.

2.- Udaleko talde sozialistak aurkeztutako mozioa, Urnietako pediatria zerbitzuan dagoen arazoa konpontzeko beharrezko pausoak eman daitezzen.

2.- Moción presentada por el grupo municipal socialista para que se den los pasos necesarios y se solucione el problema del servicio de pediatría en Urnieta.

3.- Udaleko talde sozialistak aurkeztutako mozioa, Osasun Administrazioak beste farmazia bulego bat baimentzeko ofizioko espedienteak has ditzan.

3.- Moción presentada por el grupo municipal socialista para que la administración sanitaria inicie de oficio los expedientes adecuados para proceder a la autorización de una nueva oficina de farmacia.



**2005EKO MAIATZAREN 23KO UDALBATZARRAREN AKTA
ACTA DEL PLENO DEL 23 DE MAYO DE 2005**

1.- Udaleko talde sozialistak aurkeztutako mozioa, Urnietak bere ginekologia zerbitzua izateko beharrezko pausoak eman daitezten.

Alkateak hasi du ezohiko osoko bilkura, esanez Urnietako Udaleko talde sozialistak eskatuta deitu dituela osoko bilkurara; izan ere, talde sozialistak hiru mozio sartu ditu eztabaidatu eta onartzeko. Ginekologia zerbitzuaren inguruko mozioari eta pediatria zerbitzuari buruzko mozioari dagokienez, esan du EAJ-EA udal taldeak beste mozio bat sartu duela bi horiek batzen dituen eta beste puntu bat sartzen duena: euskararen ezagutza aintzat har dadila osasun zerbitzuetako langileria handitzen bada. Horren ostean, hitza eman dio talde sozialistari.

PSE-EEko zinegotziak hartu du hitza, eta esan du ginekologiako eta pediatriako zerbitzua hobetu eta handitzeko eskatzen duten bi mozio horiek herritarren eskarien ondorio direla; adierazi du urnietar asko joan zaizkiela horrekin kezkatuta, eta beraiek ere ikusten dutela bi zerbitzu horietan hutsune nabarmena dagoela. Bestalde, esan du bi mozio horiek batean agertzen direla EAJ-EA taldeak aurkeztutako mozioan, eta beraiek esandakoa bera adierazten dela, puntu bat gehituta: euskararen ezagutza; esan du horrekin ados daudela; beraz, talde sozialistak eta EAJ-EA taldeak aurkeztutako mozioak bateratzea zinegotzi sozialistak proposatu du.


Gero, M. Asuncion Guerra Alonso PPko zinegotziak hartu du hitza, eta esan du ados dagoela talde sozialistak aurkeztutako mozioekin, eta, nahiz eta pediatria eta ginekologia zerbitzuen inguruan udaleko gobernua hainbat gestio egin dituen, bere ustez udalbatzarrean hartutako akordioak eskaera horri

1.- Moción presentada por el grupo municipal socialista para que se den los pasos necesarios y que Urnieta pueda disponer de servicio ginecológico.

El alcalde ha comenzado el pleno extraordinario señalando que ha convocado el presente pleno a instancias del grupo socialista del Ayuntamiento de Urnieta; y es que el grupo socialista presentó tres mociones para su debate y aprobación. Con respecto a las mociones sobre el servicio de ginecología y el servicio de pediatría, ha señalado que el grupo municipal PNV-EA ha presentado otra moción que unifica ambas mociones y que incluye un punto más: valorar el conocimiento del euskera, en caso de que aumente el personal del servicio sanitario. A continuación, ha cedido la palabra al grupo socialista.

Ha tomado la palabra el concejal del PSE-EE para decir que estas dos mociones solicitando se mejoren y amplíen los servicios de ginecología y pediatría parten de una iniciativa vecinal, que han sido muchos los urnietarras que se han dirigido a ellos preocupados por estos temas, y que ellos mismos observan que hay una deficiencia clara en los dos servicios. Ha comentado también que la moción presentada por el grupo PNV-EA recoge las dos mociones en una y que viene a expresar lo mismo que las presentadas por ellos, añadiendo el punto del conocimiento del euskera, con lo que están de acuerdo; por lo tanto, el concejal socialista propone que se haga una transacción entre las mociones presentadas por el grupo socialista y la presentada por el PNV-EA.

Después ha solicitado la palabra la concejal del PP, M^a Asuncion Guerra Alonso para expresar que está de acuerdo con las mociones presentadas por el grupo socialista y que si bien es cierto, que con respecto al servicio de pediatría y al de ginecología se han hecho gestiones por parte del gobierno municipal,

Urnietako Udala*Ayuntamiento de Urnieta**Siguzkoa*

2005EKO MAIATZAREN 23KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 23 DE MAYO DE 2005

indarra emango liokeela. Euskarari dagokionez, esan du ez zaiola gaizki iruditzen mozioan hori sartzea, baina jadanik ezarrita dagoela Osakidetza langileek zein hizkuntza eskakizun izan behar duten.

Horren ostean, EBko zinegotzi Juan M. Tomasena Alzurik hartu du hitza, eta esan du ados dagoela aurkeztutako mozioekin, eta espero duela onartzeko orduan denak bat etortzea; berari zuzena iruditzen zaio bi taldeen mozioak batzea eta denek bat onartzea. Bestalde, uste du asteazkenean ohiko udalbatzarra dagoenez, egokiagoa izango zela orduan eztabaidatzea, hala ez baitzuten aste berean bi udalbatzar egin beharrik izango; hala ere, ez du ukatu udaleko talde sozialistak eskubidea duela ezohiko udalbatzarrera deitzeko, baina uste du gauza horiek lehenago hitzartu daitezkeela.

Ondoren, EAJ-EA taldeko bozeramaile M. Isabel Vaquero Monterok hartu du hitza esateko mozioak bateratzearekin ados daudela, edukiarekin ere ados daudela, baina erabili diren formak ez zaizkiela ondo iruditzen; hau da, PSE-EE taldeak herri osoa buzoneatzea, bere mozioak kontuan hartzen ez direla esanez; esan du ez zaiela bidezkoa iruditzen ezohiko udalbatzar batera deitzeko eskatzea ohiko udalbatzarra 25ean delako eta bertan tratatzeko asmoa zutelako. Bestetik esan du Gizarte Ongizateko informazio batzordean gai horiek tratatu zirela eta horien inguruko azalpen guztiak eman zirela; beraz, jokaera politiko horiek ez zaizkie batera ondo iruditzen.


Azkenik, alkateak idazkariak mozio bateratua irakur dezala eskatu du, botazioa egiteko.

solicitando la ampliación de dichos servicios, considera que un acuerdo plenario daría mayor fuerza a esa petición. En lo referente al euskera, ha dicho que no le parece mal incluirlo en la moción, aunque ya está establecido qué perfiles deben tener los trabajadores de Osakidetza.

Después ha tomado la palabra el concejal de IU, Juan M^a Tomasena Alzuri para decir que está de acuerdo con las mociones presentadas y espera que haya unanimidad a la hora de aprobarlas; le parece correcto unir las mociones de los dos partidos y aprobar una conjuntamente. Por otro lado, opina que, habiendo pleno ordinario el miércoles, hubiera sido más adecuado discutir las entonces y así evitar convocar dos plenos en una semana; no niega el derecho que le asiste al grupo municipal socialista de solicitar la convocatoria de un pleno extraordinario, pero considera que estas cosas se pueden consensuar antes.

A continuación, ha tomado la palabra la portavoz del grupo PNV-EA M^a Isabel Vaquero Montero para señalar que están de acuerdo en consensuar las mociones, y que también están de acuerdo con el contenido de las mismas; no obstante, no les parecen correctas las formas empleadas, es decir, que el grupo PSE-EE buzonee todo el pueblo afirmando que sus mociones no se toman en cuenta; ha señalado que no es lícito solicitar la convocatoria de un pleno extraordinario habiendo un pleno ordinario convocado para el día 25, ya que tenían intención de tratarlo en ese pleno. Por otra parte, ha señalado que esos temas se trataron en la Comisión Informativa de Bienestar Social, y que se dieron todas las explicaciones relacionadas con estos temas; por tanto, reitera que esas actitudes políticas no les parecen correctas.

Por último, el alcalde ha solicitado que se proceda a la lectura de la moción consensuada, para someterla a votación.



2005EKO MAIATZAREN 23KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 23 DE MAYO DE 2005

Idazkariak mozio bateratua irakurri du.
Honelaxe geratu da:

La secretaria ha procedido a dar lectura a la
moción consensuada, que tiene la siguiente
redacción:

“Lehenengoa.- Urnietako Udalak kontzientzia har dezala ginekologia eta pediatria zerbitzuak beharrezkoak direla gure herrian.

“Primero.- Que el Pleno del Ayuntamiento de Urnieta tome conciencia de que los servicios de ginecología y pediatría son una necesidad en nuestro municipio.

Bigarrena.- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eskatzea zabal ditzala pediatria zerbitzua eta emakumea artatzeko zerbitzua (emagina eta ginekologoa); izan ere, herria hazi egin da eta jaiotze tasa handia du.

Segundo.-Solicitar al Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco que amplie los servicios destinados a pediatría y atención a la mujer (matrona y ginecóloga), debido al crecimiento de la población del municipio y a la alta tasa de natalidad.

Hirugarrena.- Etorkizunean osasun zerbitzua handitu edo aldatu behar badute langileek euskaraz jakin dezatela eskatzea, urnietarren %58 euskaldunak baitira.

Tercero.- Asimismo, solicitar que para futuras ampliaciones o modificaciones de personal en los servicios sanitarios se tenga en cuenta el conocimiento de euskera, ya que el municipio de Urnieta es en un 58% euskaldun”.

Alkateak botazioa egitea proposatu du, eta honako emaitza hau izan du:

El alcalde ha propuesto someterlo a votación, con el siguiente resultado:

Alde: 12 (6 EAJ-EA, 4 PSE-EE, 1 EB, 1 PP).

A favor: 12 (6 PNV-EA, 4 PSE-EE, 1 IU, 1PP)

Kontra: 0

En contra: 0

Abstentzioak: 0

Abstenciones: 0

Botazioaren ondoren, korporazioaren gehiengo absolutua osatzen duten udalkideen aldeko botoaz, udalbatzarrak hartu du ondorengo

Tras la votación, el pleno con el voto a favor de los miembros que conforman la mayoría absoluta de la Corporación ha adoptado el siguiente

AKORDIOA


ACUERDO

Lehenengoa.- Urnietako udalbatzarrak kontzientzia har dezala ginekologia eta pediatria zerbitzuak beharrezkoak direla gure herrian.

Primero.- Que el Pleno del Ayuntamiento de Urnieta tome conciencia de que los servicios de ginecología y pediatría son una necesidad en nuestro municipio.

Bigarrena.- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eskatzea zabal ditzala pediatria zerbitzua eta emakumea artatzeko zerbitzua (emagina eta ginekologoa); izan ere, herria hazi egin da eta

Segundo.- Solicitar al Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco que amplíe los servicios destinados a pediatría y atención a la mujer (matrona y ginecóloga), debido al

Urnietako Udala*Ayuntamiento de Urnieta**Gipuzkoa*

2005EKO MAIATZAREN 23KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 23 DE MAYO DE 2005

jaiotze tasa handia du.

crecimiento de la población del municipio y a la alta tasa de natalidad.

Hirugarrena.- Etorkizunean osasun zerbitzua handitu edo aldatu behar badute langileek euskaraz jakin dezatela eskatzea, urnietarren %58 euskaldunak baitira.

Tercero.- Asimismo, solicitar que para futuras ampliaciones o modificaciones de personal en los servicios sanitarios se tenga en cuenta el conocimiento de euskera, ya que el municipio de Urnieta es en un 58% euskaldun.

2.- Udaleko talde sozialistak aurkeztutako mozioa, Urnietako pediatria zerbitzuan dagoen arazoa konpontzeko beharrezko pausoak eman daitezten.

2.- Moción presentada por el grupo municipal socialista para que se den los pasos necesarios y se solucione el problema del servicio de pediatría en Urnieta.

Alkateak hartu du hitza esateko gai hau aurreko gaiarekin batera erabaki dela eta, beraz, hurrengo puntura pasatuko direla.

Ha tomado la palabra el alcalde para señalar que este punto ya se ha resuelto junto con el anterior, y que, por tanto, pasarán al punto siguiente.

3.- Udaleko talde sozialistak aurkeztutako mozioa, Osasun Administrazioak beste farmazia bulego bat baimentzeko ofizioko espedienteak has ditzan.


3.- Moción presentada por el grupo municipal socialista para que la administración sanitaria inicie de oficio los expedientes adecuados para proceder a la autorización de una nueva oficina de farmacia.

Alkateak hartu du hitza esateko, informazio batzordean azaldu zen bezala, bukatu direla Urnietan beste farmazia bat jartzeko tramiteak, eta gaur egun proiektua udaletxean dagoela; adierazi du oraindik baimena ez zaiola eman, proiektua aztertzen ari baitira, baina aurrean irekiko dela farmazia berria.

Ha tomado la palabra el alcalde para señalar que tal y como se explicó en la comisión informativa, ya han finalizado los trámites para la habilitación de una nueva farmacia en Urnieta, y que actualmente el proyecto está en el ayuntamiento; ha señalado que todavía no se ha emitido la licencia, ya que están estudiando el proyecto, pero que la nueva farmacia se abrirá este mismo año.

Hermenegildo Gonzalez Moran zinegotzi sozialistak hartu du hitza, eta esan du hilaren 10era arte ez zutela ezer jakin, eta emandako azalpenak ikusita ez duela zentzurik mozio horri eustea; beraz, erretiratzea erabaki dute. Nolanahi

Ha solicitado la palabra el concejal socialista Hermenegildo Gonzalez Morán para decir que hasta el día 10 no supieron nada, pero vistas las explicaciones dadas, no tiene sentido mantener esta moción y por lo tanto, deciden retirarla; de



**2005EKO MAIATZAREN 23KO UDALBATZARRAREN AKTA
ACTA DEL PLENO DEL 23 DE MAYO DE 2005**

ere, esan du jakin nahiko lukeela prozesua nola izan den. M. Isabel Vaquero Monterok erantzun dio esanez lehiaketa ireki bat egin dela; lehiaketa hori 2003ko aldizkari ofizialean argitaratu zen, eta geroago, esleipena. Ondoren, alkateak hartu du hitza, eta esan du esleipenduna zerrendan bigarren geratu zela; izan ere, lehenengoak lau hilabete zituen proiektua aurkezteko, baina ez zuen egin, eta bigarrenari eman zitzaion orduan.

todas formas expresa que le gustaría saber cuál ha sido el proceso. Le responde M^a Isabel Vaquero Montero diciendo que se convoca un concurso público, que se publicó en el Boletín Oficial en el 2003 el concurso y posteriormente la adjudicación. Seguidamente toma la palabra el Alcalde para señalar que el actual adjudicatario quedó el segundo en la lista, que el primero tenía cuatro meses para presentar el proyecto y no lo hizo por lo que se le dio a este segundo.

Azkenik, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak bukatutzat eman du ohiz kanpoko udalbatzar hau, goian adierazitako egunean, arratsaldeko bostak bost gutxiagotan, eta nik, Urnietako bitarteko idazkariak, hala egiaztatu dut, alkatearen oniritziarekin.

Finalmente, no habiendo más asuntos que tratar, el alcalde da por finalizado el presente pleno extraordinario, siendo las cinco menos cinco del día indicado en el encabezamiento, se levanta la sesión, de la que yo, la secretaria interina de Urnieta, certifico con la aprobación del Alcalde.

Stua.: Beatriz Garate Cortabarría
Bitarteko idazkaria,

Stua.: Florentino Ugalde Atxaga
Alkate-lehendakaria,